



2 0 0 4



x
o
s
t
e
n
a



Osakidetza
Servicio vasco de salud



OSASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE SANIDAD

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Osakidetza / Euskal Osasun Zerbitzua

Internet: www.osakidetza-svs.org
www.osanet.euskadi.net

e-mail: coordinación@sscc.osakidetza.net

Lege gordailua: BI - 3243-05

■ Osasun sailburu jaunaren aurkezpena

Urtero bezala, Memoria honi esker Osakidetza profesional guztien lana ezagutzeko aukera dugu. Jakin badakizue Osakidetza profesionalen zeregina hiritarrei asistentzia sanitarioa ahalik eta kalitate-maila hobereanean ematea dela

Jarduerari dagokionez, 2004an ere, azken urteotan izandako goranzko joera nabaria da eskainitako zerbitzu gehienetan. Esate baterako, ospitaleratzeak %2 gehitu dira, interbentzio kirurgikoak %3,5 eta Atentzio Espezializatuko kontsultak %3,2 aurreko urteko datuekin alderatuta. Antzeko zerbait gertatzen da Lehen Mailako Atentzioan. Esate baterako, Medikuntza Orokorreko kontsultak %2,8 gehitu dira eta Erizaintzakoak %3,9.

Gauzak horrela, eskuragarritasun-indizeak eta aski erantzun onak mantendu egin dira. Esate baterako, batez beste, kirurgiako itxarote zerrendak 60 egunetik beherakoak dira, eta kontsulta-denbora %2,9 gehitu da Lehen Mailako Atentzioan.

Jarduera-gehitze horretaz gain, Kudeaketa Klinikoa ere asistentzia-maila ezberdinetara hedatuz joan da. Plan eta programa berritzaileak ere hedatu dira, hala nola, terapia antikoagulantearen kontrola Lehen Mailako Atentzioan edota Osasun Mentaleko Plan Estrategikoa 2004-2008.

Bestalde, Osakidetza pertsonekin zerikusia duen orok du lehentasuna eta horrek bere horretan segitzen du. Horrela, pertsonalaren kudeaketa-sistema integratuan hobekuntza teknikoak egin dira eta hainbat jarduera-protokolo onartu da Lan Osasun arloan. Era berean, gure inguru soziokulturala kontuan hartuta, zenbait jarduera egin dira gure osasun zerbitzuetan euskeraren erabilera normalizatzeko.

Neurri horiek guztiak Osakidetza 2003-2007 plangintza-aldirako onartu zuen Plan Estrategikoaren eta Kalitate Planaren baitan hartu dira. Kalitate Planak bere helburuen artean ezartzen du EFQM eredua kudeaketaren kalitate erreferentetzat hartu behar dela. Osakidetza kalitatearekin duen konpromiso hori dela eta, ahalegin hori urte honetan zehar saritua izan da. Izan ere, EUSKALIT- Kalitaterako Euskal Fundazioak zilarrezko "Q" saria eman die gure lau erakunderi.

Ekonomia arloan, finantziazioaren eta kudeaketaren arteko oreka azpimarratu behar da. Horren adierazle dira, alde batetik Eusko Jaurlaritzak gure osasun-sistema publikoaren alde egin duen apustu sendoa eta bestetik gure profesionalek eskura ditugun baliabideak behar bezala erabili izana. Izan ere, euren inplikatzeari eta jardunari esker ezarritako helburuak lortzen laguntzen dute. Aldi berean beste helburu bat ere lortzen dute, hain zuzen, hiritarrak harro sentitzea jasotzen duten osasun-atentzioaz.

Gabriel M^a Inclán Iribar

Osasun Sailburua

Osakidetza Administrazio Kontseiluko Lehendakaria

Aurkibidea

I. SARRERA	9
Zerbitzu-erakundearen mapa	12
II. ESTRATEGIA	13
MISIOA, IKUSPEGIA ETA BALOREAK	15
HELBURU KORPORATIBOAK	17
ERABATEKO KALITATEA	18
- Euskalit/Kalitaterako Euskal Fundazioa	18
- EFQM ereduaren bidezko ebaluazioak	18
- 2003-2007 Kalitate-planaren aurrerabidea	18
KUDEAKETA KLINIKOKO UNITATEAK	20
2004ko BESTE PROIEKTU GARRANTZITSU BATZUK	22
- Lehen mailako atentzioa	22
- Atentzio espezializatua	24
- Emergentziak	25
AITORMENAK	26
- Erakundearen kanpo-aitormenak (ISO eta EFQM)	28
ERAKUNDEAREN ARGITALPENAK	29
- Inprimatuak	29
- Bideografikoak	29
INTERES BEREZIKO ARAUTEGIA	30
III. PERTSONAK	31
PLANTILLA	33
- Plantillaren banaketa	33
- Plantillaren ezaugarriak	36
- Plantillaren plangintza eta antolamendua	38
HAUTAKETA ETA LANPOSTUAK BETETZEA	39
- Lan-eskaintza publikoa	39
- Deialdi publikoak	39
- Aldi baterako kontratazioa	39
- Zerbitzu Batzordea	41
EMAITZAK PERTSONENGAN	43
- Pertsonen gogobetetasunaren ebaluazioa	43

LAN-OSASUNA	50
- Lan arriskuen prebentzioaren kudeaketa	50
- Osasunaren zaintza	50
- Lan-istripuak eta lanbideko gaixotasunak	50
- Osasun-arrazoiengatiko lekualdaketak	51
- Txertaketa-programa arrisku biologikoen aurrea	51
- Lan-absentismoa	51
LANSARIAK	53
HIZKUNTZA NORMALIZAZIOA	54
NEGOZIAZIO KOLEKTIBOA	55
LAN-ARLOKO JURISDIKZIOA	56
IV. BALIABIDEAK	57
OBRAK, INSTALAZIOAK ETA EKIPAMENDUAK	59
- Obrak	59
- Instalazioak	60
- Ekipamendua eta goi-mailako teknologia	61
INFORMAZIOKO SISTEMAK ETA TEKNOLOGIAK	63
- Garapen-arloa	63
- Ekoizpen-arloa	64
- Aldabide eta Gizabide arloa	65
V. PROZESUAK (jarduera)	67
GOGOETA BATZUK JARDUERARI BURUZ	69
- Lehen mailako atentzioa	69
- Atentzio espezializatua	69
LEHEN MAILAKO ATENTZIOKO JARDUERA	71
- Oinarrizko adierazleak	71
- Gripearean aurkako txertaketa-kanpaina	72
AKUTUENTZAKO ETA EGONALDI ERTAIN ETA LUZEKO OSPITALEETAKO JARDUERA	73
- Oinarrizko adierazleak	73
- Ospitalizazioaren alternatibak	75
- Ingresuak eta kontsultak zerbitzuko: akutuentzako eta egonaldi ertain eta luzeko ospitaleak	76
- Akutuentzako ospitaleetako altak: 25 DTE ohikoenak	77
- Egonaldi ertain eta luzeko ospitaleetako altak: 25 DTE ohikoenak	78
ASISTENTZIA PSIKIATRIKOA ETA OSASUN MENTALA: JARDUERA	79

EMERGENTZIAK	81
ATENTZIO ESPEZIALIZATUKO BESTE PROGRAMA BATZUETAKO JARDUERA	82
- HIESA Prebenitzeko eta Kontrolatzeko Plana	82
- Titietako Minbizia Goiz Detektatzeko Programa	83
- Haurren Hortzak Zaintzeko Programa	84
- Haurren Gorreria Goiz Detektatzeko Programa	85
- Transplanteetako Programa	86
- Transfusio eta Giza Ehunen Euskal Zentroa	87
VI. EMAITZAK	89
GOGOETA BATZUK EMAITZEI BURUZ	91
- Lehen mailako atentzioa	91
- Atentzio espezializatua	92
ANTZEMANDAKO KALITATEA	93
- Gogobetetasun-inkestak	93
- Kexak, erreklamazioak eta eskerronak	95
- Jardun sanitarioetatik eratorritako erreklamazio judizialak	96
BITARTEKO ETA AZKEN EMAITZAK: LEHEN MAILAKO ATENTZIOA	97
- Eskuragarritasuna	97
- Irakaskuntza	97
- Ikerkuntza	97
- Baliabideen erabilera	97
BITARTEKO ETA AZKEN EMAITZAK: AKUTUENTZAKO ETA EGONALDI ERTAIN ETA LUZEKO OSPITALEAK	98
- Baliabideen erabilera	98
- Oinarrizko adierazleak	98
- Ospitalizazioaren alternatibak	99
- Batez besteko egonaldia eta okupazio-indizea espezialitateen arabera	100
- 25 DTE ohikoenen batez besteko egonaldia: akutuentzako ospitaleak	101
- 25 DTE ohikoenen batez besteko egonaldia: egonaldi ertain eta luzeko ospitaleak	102
- Alta anbulatorioak DTEen arabera: akutuentzako ospitaleak	103
- Berringresuak espezialitateen arabera: akutuentzako ospitaleak	104
- Berringresuak DTEen arabera: akutuentzako ospitaleak	105
- Eskuragarritasuna	106
- Kirurgiako itxaronzerrenda	106
- Kirurgiako itxaronzerrenda: paziente gehien dituzten 25 prozedura kirurgikoak	108

- Kanpo-konsultetako itxaronzerrenda	109
- Proba osagarrietako itxaronzerrenda	110
- Irakaskuntza	111
- Ikerkuntza	111
- Erizaintzako atentzioko prozesua.....	111
- Alta ondoko zainketak: ospitalea eta lehen mailako atentzioa.....	111
- Farmazia	111
- Heriotzak	111
- Arrisku-adierazleak	111
- Infekzio nosokomiala.....	112
BITARTEKO ETA AZKEN EMAITZAK: ASISTENTZIA PSIKIATRIKOA ETA OSASUN MENTALA	113
BITARTEKO ETA AZKEN EMAITZAK: ATENTZIO ESPEZIALIZATUKO BESTE PROGRAMA BATZUK.....	114
- HIESA Prebenitzeko eta Kontrolatzeko Plana	114
- Titietako Minbizia Goiz Detektatzeko Programa.....	114
- Haurren Hortzak Zaintzeko Programa	117
- Haurren Gorreria Goiz Detektatzeko Programa	118
KOSTUAK	119
- Kostuak.....	119
- 25 DTE ohikoenen kostuak: akutuentzako ospitaleak	120
- 25 DTE ohikoenen kostuak: egonaldi ertain eta luzeko ospitaleak.....	121
PROGRAMA-KONTRATUA	122



I. Sarrera

Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua Osasun Sailari atxikitako zuzenbide pribatuko Ente Publikoa da. Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren Legeak dioenaren arabera, badu bere nortasun juridikoa eta ahalmen osoa bere helburua betetzeko, hau da, zerbitzu sanitarioak eskaintzeko, bere menpean dauden zerbitzu-erakundeen bidez.


Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldea, egoera soziosanitarioaren arabera, hiru mugape geografiko (osasun-barrutiak deiturikoak) hauetan zatituta dago: Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa. Barruti bakoitzean lehen mailako atentzioa egoki antolatu eta atentzio espezializatuarekin koordinatzea bermatzen da. Horrela, bada, Osakidetzaren barruan ondoko zerbitzu sanitarioak daude:

- Lehen mailako atentzioa:
 - 7 osasun-eskualde
 - 310 osasun-zentro
- Ospitaleko atentzioa:
 - Akutuentzako 11 ospitale
 - Egonaldi ertain eta luzeko 3 ospitale
- Osasun mentala:
 - Akutuentzako ospitaleetan integratutako Psikiatriako 5 zerbitzu
 - Psikiatriako 4 ospitale monografiko
 - Ospitalez kanpoko osasun mentaleko 3 barruti. Horietako bat Psikiatriako ospitale monografiko batean dago integratuta
- Beste batzuk:
 - Emergentziak
 - Transfusioen eta Giza Ehunen Euskal Zentroa
 - Osatek SA


Zerbitzu sanitarioak eskaintzeko egitura publikoak honela antolatuta daude Osakidetzako Estatutuen arabera (255/1997 Dekretua):

- Erakunde nagusia:
 - Presidentetza: Osasun sailburua, Ente Publikoaren eta horren Administrazio Kontseiluaren ordezkaria dena. Ente Publikoaren operazioak gainbegiratu eta horren eskubide zein interesak defendatzen ditu.
 - Administrazio Kontseilua: kide anitzeko organoa, batez ere Ente Publikoaren jarduerak zuzendu eta kontrolatzen dituen eta Autonomia Erkidegoko Administrazioa ordezkatzen duten bost kidek osatua, presidenteaz gainera.
- Administrazio eta kudeaketa korporatiboko erakunde zentrala: Administrazio Kontseilua laguntzeko zuzendaritza-egitura osatzen du, eta bere zuzendaritza-atribuzioak hauek dira: zerbitzu-erakundeei dagokienez, kontrolatzea, estrategia koordinatzea, eta kudeaketa-eskumenetan laguntzea edo eskumen hori gauzatzea. Erakunde zentralaren organoak honela egituratuta daude:
 - Zuzendaritza Nagusia
 - Asistentzia Sanitarioko Dibisioa
 - Ekonomia eta Finantzako Dibisioa
 - Giza Baliabideetako Dibisioa
- Zerbitzu sanitarioetako erakundeak: osasun-zerbitzuak eskaintzen dituzte, eta horretarako, ekonomia eta finantzako autonomiaren eta kudeaketaren printzipioa hartzen dute aintzat.

Zerbitzu-erakundeen mapa



- ♣ Ospitalez kanpoko osasun mentala
- ▲ Emergentziak
- Akutuentzako ospitalea
- ★ Ospitale psikiatrikoa
- ◆ Egonaldi ertain eta luzeko ospitalea
- Transfusioen eta Giza Ehunen Euskal Zentroa



II. Estrategia

■ Misioa, ikuspegia eta baloreak

Misioa

Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren misioa, EAEko sistema sanitarioaren funtsezko alderdia izaki, bertako herritarrei zerbitzu sanitario publikoak ematea da, euren osasun-beharrizanak betetzeko, ekitate, efizientzia eta kalitatearen printzipioei jarraiki, osasuna sustatu, prebenitu, zaindu eta hobetzeko jardueren garapenaren bitartez.

Aipatutakoa lortzeko, ondokoak hartzen ditugu gure gain:

- Pazientea, gure jarduera asistentzial guztiaren erdigune eta helburu gisa.
- Pertsonen garapena, funtsezko balore gisa helburuak bete ahal izateko.
- Berrikuntza eta ikerkuntza, aldaketara egokitzeko adierazle gisa.
- Ezagutzaren kudeaketa aktiboa, gure zentroyen arteko koordinazioaren eta elkarlanaren bitartez.
- Kudeaketa sistema eragingarria, parte-hartzailea, koordinatua eta etengabeko hobekuntzara begira dagoena.

Horrela, ondokoak lortu ahal izango ditugu:

- Gure pazientea gogobetetzea.
- Gure langileak gogobetetzea eta Osakidetzako helburuen aldeko ahaleginean parte hartu dezaten lortzea.
- Giza baliabideak eta baliabide materialak eragingarritasunez eta efizientziaz kudeatzea.
- Erkidegoaren garapenari gure ahalegina gaineratzea.

Ikuspegia

Osakidetzak pazienteari begira dagoen erakunde sanitario bikaina izan nahi du.

Ikuspegiaren definizioak ondokoak dakartza berekin:

- Osakidetzak izaera publikoko erakunde sanitario gisa eratu eta jardun nahi du.
- Bikaintasunaren aldeko apustua egiten du, faktore bereizle gisa, bere jardueraren alor guztietan.
- Bere zeregina pazienteari begira dago guztiz.

Baloreak

Osakidetzak, hornidura sanitarioarako sistema publikoa den aldetik, sinesteez eta baloreez osatutako sistema bat eratu du, bere misioari eta etorkizunerako proiektuari erantzuteko. Balore-multzo horretan biltzen diren ezaugarri kulturalak pentsatzeko, baloratzeko eta jokatzeko modua definitu behar dute Erakundeko pertsona guztientzat.

Ondoko bost balore hauek -denborari dagokionez, iraunkorrak, eta, egokitzapenari dagokionez, malguak- Osakidetzako identitate-ezaugarria osatzen dute, bai barrura, bai kanpora begira.

Bezeroari begira: Jarduera asistentzialaren erdigunea pazientea da, eta bere osasunaren beharrianek bideratu behar dute jarduera guztien irizpide nagusia, betiere, Pazienteen Eskubide eta Betebeharren Kartarekin sintonian.

Bezeroari begira jartzea ezartzen duen balore horrek Erakundearen aldetik eskatzen dituen jokaeretatik ondokoak dira espezifikoenak:

- Pertsona modu integralean kontsideratzea.
- Tratu zuzena eta pertsonalizatua.
- Informazio egokia ematea garaiz.
- Bezeroen testinguru linguistikoa errespetatzea eta Euskara sartzen joatea eurenganako tratuan.

Profesionaltasuna: Gaitasun teknikoa, kudeaketako gaitasuna eta pertsonen ardura dira eraginkortasuna eta kalitatea lortzeko faktore nagusiak.

Profesionaltasunak eskatzen dituen jokaeretatik ondokoak dira espezifikoak:

- Ezagupenak etengabe eguneratzea.
- Diagnostiko eta tratamenduan eragingarriak izatea.
- Nork bere esparruan bere jardura arduraz betetzea.

Berrikuntza eta etengabeko hobekuntza: Erakunde osoaren eta bere zentroen erantzukizuna da ingurumen sanitarioaren behar eta eskari berriei irtenbide berritzaileen bitartez erantzuna ematea.

Berrikuntza eta etengabeko hobekuntzaren alde egiteak ondoko joera espezifikoak eskatzen ditu:

- Aldaketetara etengabe egokitzea.
- Aurrera egiteko eta ekimenez jokatzeko jarrera aktiboa.
- Denok era aktiboan parte hartzea.

Helburuekiko konpromisoa: Misioa beteko bada, pertsona guztiak Osakidetzaren helburuekin identifikatzea eta helburu horiek lortzeko parte hartzea, bete beharreko baldintzak dira.

Helburuekiko konpromisoa ondoko jokaera espezifikoetan agertzen da:

- Talde-lana.
- Jardueren planifikazioa eta helburuen lorpena.
- Lortutako emaitzen erantzukizuna gainean hartzea.
- Kontrola eta plangintza, segimendua eta hobekuntza egiteko mekanismoak ezartzea.

Emaitzei eta efizientziari begira egin beharreko lana: Osakidetzak, baliabide publikoak kudeatzen dituen aldetik, kudeaketako alor guztietan eragingarritasuna, efizientzia eta kalitatea lortzeko erantzukizuna dauka.

Emaitzei begira lan egiteak ondoko jokaera espezifikoak eskatzen ditu:


- Zorroztasuna, baliabideak erabiltzeko garaian.
- Baliabide horiek errentagarri bihurtzea.

■ Helburu korporatiboak

Datozen urteetako helburu korporatiboak misioaren, ikuspegiaren eta baloreen definizioarekin bat datozela -eta horiekin koherentzia- planteatzen ditu Osakidetzak. Kontuan hartzen du ingurumenean gerta daitezkeen aldaketen eragina, eta bere ahalmenak eta baliabideak baliatzen ditu.

Helburuen asmoa da bezero/pazienteei euren zerbitzura, eragingarritasunera eta kalitatera bideratutako sanitatea eskaintzea, helburu horietan pertsonak inplikatur, eta erakundeak bideratuz enpresaren kudeaketa eta teknologiaren etengabeko garapenari begira. Bost dira:

1. BEZERO/PAZIENTEAREN ZERBITZUA
2. PERTSONEN INPLIKAZIOA
3. ERABATEKO KALITATEA
4. ENPRESA- ETA KUDEAKETA-GARAPENA
5. IKERKETA, GARAPENA ETA BERRIKUNTZA



■ Erabateko kalitatea

Euskalit/Kalitaterako Euskal Fundazioa

2004. urtean Osakidetzak Euskalit/Kalitaterako Euskal Fundazioaren Patronatuko lehen lehendakariordetza bere gain hartu du.

European Foundation for Quality Management ereduaren bidezko ebaluazioak

1. Kanpo-ebaluazioa:

2004. urtean Osakidetzako 4 zentrok Euskalit/Kalitaterako Euskal Fundazioaren kanpo-ebaluazioko prozesua iragan dute. Laurek 400 puntuak gainditu dituzte -Uribeko Eskualdea, Santa Marina Ospitalea, Deba Garaiko Ospitalea eta Zamudioko Ospitalea- eta zilarrezko Qa lortu dute.

2. Euskaliteko Ebaluatzaileen Kluba:

Osakidetzak Euskalitek akreditutako EFQMko 100 ebaluatzaile ditu (Euskaliteko ebaluatzaileen %11, gutxi gorabehera). Horietako askok enpresen kanpo-ebaluazioetan parte hartu dute, Enpresa-kudeaketaren Kalitatearen Euskal Saria emateko.

2003-2007 kalitate-planaren aurrerabidea

2004. urtean Kalitate Plana ezartzeko bidean aurrera egin da. Zerbitzu-erakundeek Plana hedatu dute maila desberdinetan.

Kalitate-planak bi helburu orokor eta hamabi espezifiko ditu:

I. Zerbitzu sanitarioaren kalitatea hobetzea:

1. Prestazio sanitarioen eraginkortasuna eta efikazia hobetzea
2. Atentzioaren jarraikortasuna hobetzea
3. Prestazio sanitarioen erabileraren egokitasuna hobetzea
4. Pazienteen asistentzia sanitarioaren segurtasuna hobetzea
5. Prestazio sanitarioen eskuragarritasuna hobetzea
6. Ostalaritzako tratua eta baldintzak hobetzea
7. Informazioa hobetzea

II. Kudeaketako kalitatea hobetzea:

1. Aitzindaritza
2. Politika eta Estrategia
3. Pertsonak
4. Aliantzak eta Baliabideak
5. Prozesuak

- Adierazleen %31k hobekuntza izan dute, 2003koekin konparatzen baditugu, baina oraindik ez dira iritsi 2005eko helburura. Horretarako, abian jarri dituzte zenbait jarduera-plan, hala erakunde zentralak nola gainerako zerbitzu-erakundeek eraginda.

- Adierazleen %18k, berriz, lortua dute dagoeneko 2007ko helburua, eta horiek lantzen jarraitzeko asmoa dago, emaitzei eusteko eta, ahal dela, baita hobetzeko ere.

Ondorengo tauletan lortutako helburuen banaketa zehazten da. Lehenengo zutabea, "bideratutako adierazleak" izenekoan, 2003koekin alderatuta emaitzetan hobekuntza izan duten adierazleen portzentajea aurkezten da, 2005eko helburuak oraindik lortu barik. Bigarren zutabea 2005eko helburuak lortu dituzten adierazleen portzentajea aurkezten da eta hirugarren zutabea 2007ko helburuak lortu dituztenak.

2003-2007 KALITATE-PLANA. 2004ko AURRERABIDE-TXOSTENA

	Bideratuko adierazleak	2005eko helburak	2007ko helburak
1.1. PRESTAZIO SANITARIOEN ERAGINKORTASUNA ETA EFIKAZIA HOBETZEA	(20%) 1/5	(50%) 3/5	(40%) 2/5
1.2. ATENTZIOAREN JARRAIKORTASUNA HOBETZEA	(40%) 2/5	(40%) 2/5	(20%) 1/5
1.3. PRESTAZIO SANITARIOAREN ERABILERAREN EGOKITASUN HOBETZEA	(33%) 1/3	(67%) 2/3	(33%) 1/3
1.4. PAZIENTEEN AISTENTZIA SANITARIOAREN SEGURTASUNA HOBETZEA	(56%) 5/9	(22%) 2/9	(22%) 2/9
1.5. PRESTAZIO SANITARIOEN ESKURAGARRITASUNA HOBETZEA	(22%) 2/9	(33%) 3/9	(33%) 3/9
1.6. OSTALARITZAKO TRATUA ETA BALDINTZAK HOBETZEA	(50%) 3/6	(33%) 2/6	(17%) 1/6
1.7. INFORMAZIO HOBETZEA	(50%) 3/6	(17%) 1/6	(17%) 1/6

ZERTBITZU SANITARIOAREN KALITATEA HOBETZEA

SUBTOTALA

(40%) 17/43 (35%) 15/43 (26%) 11/43

	Bideratuko adierazleak	2005eko helburak	2007ko helburak
2.1. AITZINDARITZA	(30%) 3/10	(50%) 5/10	(10%) 1/10
2.2. POLITIKA ETA ESTRATEGIA	(14%) 1/7	(29%) 2/7	(0%) 0/7
2.3. PERTSONAK	(20%) 2/10	(30%) 3/10	(10%) 1/10
2.4. ALIANTZAK ETA BALIABIDEAK	(31%) 4/13	(23%) 3/13	(15%) 2/13
2.5. PROZESUAK	(17%) 1/6	(50%) 3/6	(17%) 1/6



KUDEAKETAKO KALITATEA HOBETZEA

SUBTOTALA

(24%) 11/46 (35%) 16/46 (11%) 5/46

TOTALA

(31%) 28/89 (35%) 31/89 (18%) 16/89



Kudeaketa klinikoko unitateak

- Lehen mailako atentzioan ondorengo unitateek funtzionatu dute kudeaketa klinikoko kontratuen bidez:

2003	2004
GIPUZKOA EKIALDEKO Eskualdea Oiartzun Altza Beraun Intxaurren Iztia Lasarte Pasai Antxo Pasai San Pedro Alde Zaharra Gros Lezo- P. Donibane Zumaia URIBEKO Eskualdea Erandio Gorliz-Plentzia Txorierri Leioa Mungia BARRUALDEKO Eskualdea Abadiño-Matiena-Berriz Arratia Basauri-Ariz Aiala Basauri-Kareaga Durango Gernikaldea Etxebarri Galdakao Gernika Laudio Lekeitio Markina Ondarroa ARABAKO Eskualdea Aranbizkarra II Arabako Mendialdea San Martin Sansomendi Lakuabizkarra Abetxuko Nanclares de Oca	GIPUZKOA EKIALDEKO Eskualdea Oiartzun Altza Beraun Intxaurren Iztia Lasarte Pasai Antxo Pasaia San Pedro Alde Zaharra Gros Lezo Zumaia Amara-Erdialdea Egia Irun-Erdialdea Zarautz URIBEKO Eskualdea Erandio Gorliz-Plentzia Txorierri Leioa Mungia BARRUALDEKO Eskualdea Abadiño Arratia Basauri-Ariz Aiala Basauri-Kareaga Durango Gernikaldea Etxebarri Galdakao Gernika Laudio Lekeitio Markina Ondarroa Amorebieta Arrigorriaga Bermeo ARABAKO Eskualdea Aranbizkarra II Arabako Mendialdea San Martin Sansomendi Lakuabizkarra Abetxuko Nanclares de Oca Alde Zaharra Lakua-Arriaga Arabako Lautada Iparralde-Legutiano Errioxa

BILBOKO Eskualdea
Abusu
Alde Zaharra
San Inazio
Mesedeetakoa
Errekalde
San Adrian
Santutxu

BILBOKO Eskualdea
Abusu
Alde Zaharra
San Inazio
Mesedeetakoa
Errekaldeberri
San Adrian
Santutxu-Solokoetxe
Otxarkoaga
Santutxu-El Karmelo

GIPUZKOA MENDEBALDEKO Eskualdea
Villabona
Torrekua
Arrasate
Ermua
Ibarra
Oñati

GIPUZKOA MENDEBALDEKO Eskualdea
Villabona
Torrekua
Arrasate
Ermua
Ibarra
Oñati
Azkoitia
Beasain
Andoain
Elgoibar

EZKERRALDEA-ENKARTERRIKO Eskualdea
Mamariga
Desertu
Sodupe-Güeñes
Markontzaga
Trapagaran
Errepelega

EZKERRALDEA-ENKARTERRIKO Eskualdea
Mamariga
Desertu
Sodupe
Markontzaga
Trapagaran
Errepelega
Zuazo

- **Atentzio espezializatuan kudeaketa klinikoko kontratudun unitateekin esperientziak burutu dira azken urteetan:**

BASURTUKO Ospitalea
Psikiatria
Anatomia patologikoa
Gaixotasun infektzioak
Etxeko ospitalizazioa

DONOSTIA Ospitalea
Laborategi bateratua

GALDAKAOKO Ospitalea
Neumologia
Urologia-Litotrizia
Eguneko ospitale kirurgikoa

SANTIAGO Ospitalea
Psikiatria

TXAGORRITXU Ospitalea
Kardiologia eta zainketa kritikoak
Laborategia

2004ko beste proiektu garrantzitsu batzuk

Lehen mailako atentzioa

Praktika klinikoko gidak

- 2004. urtean jarraitu da hipertentsio arterialeko gida zabaltzen eta martxan jartzen.
- Bi lan-talde eratu dira praktika klinikoko gida bi egiteko, asma bronkialari eta lumbalgiei buruzkoak. Lehenengo urratsak ematen hasi dira, 2005ean zehar bukatzeko asmoz.
- Dislipemiei buruzko gida bat egitea onartu da.

Lehen mailako atentzioko prozesuen mapa

- ISO 9001:2000 batzorde teknikoak 2004an lan egin du lehen mailako atentzioko prozesuen mapa osoa berregiteko, hobekuntzak sartuz eta bere antolakuntza berregituratuz eraginkorragoa izan dadin.
- 2004an 16 unitate gehiagok lortu dute kalitatea kudeatzeko ISO sistema egiaztatzea Bezeroak Atenditzeko Eremuaren hedaduran eta 8k hedadura osoan, taula honetan zehazten den moduan:

	BAE	HEDADURA OSOA
ARABA	Aranbizkarra I Aranbizkarra II Sansomendi	Lakuabizkarra Alde-zaharra Montaña Alavesa
BILBAO	Basurto-Altamira Mesedeetakoa	Santutxu-El Karmelo
EZKERRALDEA-ENKARTERRI	Desertu Sodupe Zuazo	
GIPUZKOA EKI.	Amara Erdialdea Irun Erdialdea	Parte Vieja
GIPUZKOA MEND.	Beasain Lazkao	Oñati
BARRUALDEA	Abadiño Markina Ondarroa	Kareaga-San Miguel Landako-lurreta
URIBE	Areeta	

- Unitate hauekin BAEen ISO egiaztatzea badago ezarrita lehen mailako atentzioko 55 unitatetan eta hedadura osoan 12 unitatetan.

Ahoko antikoagulazioa

- Aurten fase pilotua garatu da ahoko antikoagulazioaren kontrola balidatzeko lehen mailako atentzioko unitate hauetan: Lazkao, Erresteria (Iztietia eta Beraun), Gazteleku, Ortuella, Gorliz-Plentzia, Santutxu eta Lakuabizkarra. Emaiza positiboen eraginez kontrol-sistema hau ezarriko da sareko beste zentro batzuetan 2005ean zehar.

Pazienteak sailkatzea "Adjusted clinical groups" (ACG) sistemaren arabera

- 2003an bukatutako azterketan case-mix sistemaren balioa kupo eta LMUen gaixotze-tasa aztertze erakutsi ondoren, 2004an hasi da ustiatzeko aplikazio informatikoa garatzen Osakidetza sare osoan.
- Datuak ustiatzen hasteko erreferentziako data 2004ko urriaren 1a da, urtebetean luzatuko dena lehenengo emaitzak atera ahal izateko.

Informatizazioa

- 3s-Osabide programaren hedapena arian-arian garatu da 2004an zehar, urte bukaerako egoera eratu arte, ondorengo taulan adieraziko dena:

LMUak guztira BAE informatizatuta duten LMUak	OSABIDE							EAE	
	Araba	Gipuzkoa mend.	Gipuzkoa ekialdea	Barrualdea	Ezkerraldea- Enkarterri	Uribe	Bilbao	LMUak	Zentroak
	21	21	23	17	19	9	20	130	310
	19	21	22	17	19	9	20	127	224
	%90	%100	%96	%100	%100	%100	%100	%98	%72

LMUak guztira BAE informatizatuta duten LMUak	AMI-LM							EAE	
	Araba	Gipuzkoa mend.	Gipuzkoa ekialdea	Barrualdea	Ezkerraldea- Enkarterri	Uribe	Bilbao	LMUak	Zentroak
	21	21	23	17	19	9	20	130	310
	1	0	1	0	0	0	0	2	3
	%5	%0	%4	%0	%0	%0	%0,0	%1,5	%1,0

LMUak guztira BAE informatizatuta duten LMUak	GUZTIRA							EAE	
	Araba	Gipuzkoa mend.	Gipuzkoa ekialdea	Barrualdea	Ezkerraldea- Enkarterri	Uribe	Bilbao	LMUak	Zentroak
	21	21	23	17	19	9	20	130	310
	20	21	23	17	19	9	20	129	227
	%95	%100	%100	%100	%100	%100	%100	%99,2	%73,2

Informatizatuta dauden profesionalak (medikuntza eta erizaintza)	Araba	Gipuzkoa mend.	Gipuzkoa ekialdea	Barrualdea	Ezkerraldea- Enkarterri	Uribe	Bilbao	EAE	
	353	391	513	409	382	298	458	2804	
	%90	%100	%100	%100	%100	%100	%100	%98,6	

Informatizatu gabeko zentro gehienak kontsultategi periferikoak dira eta ez dute linearako aukerarik sarbidea jartzeko.

Atentzio Espezializatua

Teknologien erabilera

- Ospitale orokorretan Garuneko hodietako fibrinolisi urgentearen plana martxan jartzea
- Lehen mailako atentziaoan ahoko antikoagulazioaren terapia kontrolatzeko programa garatzea ospitaleetako hematologoek laguntza eta koordinazioaren bidez.
- Donostia Ospitalean 2003ko abenduan-2004ko urtarrilean Ebidentzian Oinarritutako Medikuntzako unitate asistentzial bat martxan jartzea barne-medikuntzako zerbitzuaren barruan.
- Sten estaliak eskaintzen dituzten kontratu merkantil berriak ezartzea eta segimendua egiten da sareko zentroetan horien kontsumoari dagokionez.
- Osasun mentaleko mapa eta ospitale kanpoko osasun mentaleko zerbitzuen diagrama egitea.

Antolakuntza funtzionala

- Arabako eta Bizkaiko bihotzeko kirurgiarako proposamen adostua.
- Gernikaldea konponbide azkarreko zentroaren obrak hasia.
- EQUAL-II markoaren babesean sortutako garatze-programan parte hartzea. Programa horren helburua da lan merkatutik baztertutako taldeek lanean txertatzeko gaitasuna hobetzea.
- Bizkaiko egonaldi luzeko eta errehabilitazio psikiatrikoko ospitaleen berrantolatze asistentzialerako plana egitea.

Informatizazioa (e-Osabide)

- Modulu hauek garatzea: eguneko ospitalea, erradiologia, farmazia, dokumentazioa eta artxiboak eta dietak.
- San Eloy Ospitalean modulu hauek ezartzea: onarpena, kirurgiako itxaronzerrenda, jarduera eta errehabilitazioko eskaerak kudeatzea.
- Santa Marinen e-Osabide ezartzen hasia San Eloy Ospitalean ezarritako modulu berberetan (kirurgiako itxaronzerrenda izan ezik).

Praktika klinikoa

- Kirurgia bariatrikoko programa ebaluatu eta hobetzeko lehenengo fasea egitea.
- Zuzendaritza Nagusiaren jarraibideak egitean ondorengoari dagokionez:
 - Pazientearentzako informazioa klinikoa eta baimen informatua
 - Gailu ezargarriak eta material suntsigarria hornitzea intsulina, morfikoak eta beste farmako batzuk etengabe erabili ahal izateko ospitaleratu gabeko pazienteekin.
- Batzorde klinikoetan praktika onei buruzko I. Jardunaldia.
- Osakidetzako 2003-2007 Kalitate-Plana ezartzea.

Emergentziak

• Komunikazioa

- Web orrialdea: web orrialdearen alde publikoa martxan jartzea.
- Emergentzietako profesional guztiei posta elektronikoko kontu indibidualak ezartzea.
- Osakidetzako Emergentzietako X. urteurrena: oroipen jardunaldia egitea, izaera zientifikokoa eta Erakundeko profesionalen arteko harremanetarako.
- Koordinazio zentroetako bateratze pertsonala.
- Osakidetzako intranetara sarbidea duten lineak inplementatzea koordinazioko zentroetan eta bizi euskarri aurreratuko anbulantzien basean.

• Informatizazioa

- Koordinazioko zentroetan Osabide ezartzea (Garapen funtzionalaren zain).

• Teknologia

- Koordinazioko zentroetan eskaerak definitzea, proiektu pilotua eta telefonia eta sistema informatikoaren arteko interface-ren segimendua.
- Bizkaiko zentro koordinatzaileako linea telefonikoak digitalizatzea.
- Historia klinikoen artxiboa digitalizatzea.
- Erakunde Zentraleko datuak prozesatzeko zentrorako ADSL konexioa eta Osakidetzako intranet.

• Praktika Klinikoa

- Ictus kodea: ospitaleaz kanpoko mailan prozesua definitzea eta finkatzea. Ospitalearen aurreko erantzunean inplikaturako guztientzako irakaskuntza eta informazioa.

• Prebentziorako tresnak

- 24 prebentzio-tresnen planifikazio, diseinu, parte hartze eta segimendua aurreikus daitezkeen arrisku-egoeretan.

Aitormenak

- Zilarrezko Q kudeaketako bikaintasunari, Eusko Jaurlaritzak emana Zamudioko, Deba Garaiko eta Santa Marinako ospitaleei eta Uribeko Eskualdeari. Lau sari hauei gehitzen zaizkio aurreko urteetan lortutako zortzietan: Bidasoako Ospitalea (urrezko Q eta zilarrezko Q), Zumarragako Ospitalea (urrezko Q eta zilarrezko Q), Arabako Psikiatrikoa eta Arabako Ospitalez kanpoko Osasun Mentala (zilarrezko Q), Txagorritxu Ospitalea (zilarrezko Q), Gipuzkoa Ekialdeko Eskualdea (zilarrezko Q) eta Osatek (zilarrezko Q).
- 2004an bikaintasunarekiko konpromisoaren diploma lortu du erakunde 1ek: Bilboko Eskualdea. Horrela guztira 25 erakundek gainditu dute bikaintasunarekiko konpromiso-maila, Euskalit/Kalitaterako Euskal Irakundeak ematen duena.
- ISO ziurtagiriak:

2004 bukatutakoan bazeukaten ISO ziurtagiria zentro eta zerbitzu hauek:

- Arabako Eskualdea: harrera, informazio eta kudeaketa administratiboko zerbitzuak Olagibel, San Martin, Aranbizkarra I, Aranbizkarra II, Sansomendi, La Habana eta Zaramagako zentroetan. Gainera, Alde Zaharrak, Lakuabizkarrak eta Arabako Mendialdeko zentroek hedadura osoa daukate eta horren barruan sartzen da lehen mailako atentzioko asistentzia sanitarioa ematea arlo hauetan: medikuntza orokorra, pediatria eta erizaintza, proba diagnostikoak egitea eta komunitatean esku hartze sanitarioko programak.
- Gipuzkoa Ekialdeko Eskualdea: harrera, informazio eta kudeaketa administratiboko zerbitzuak Ondarreta, Errenteria-Beraun, Egia, Amara Erdialdea eta Irun Erdialdeko zentroetan. Gainera, Alde Zaharra eta Zumaia-Zestoa-Getariako zentroek hedadura osoa dute eta horren barruan sartzen da lehen mailako atentzioko asistentzia sanitarioa ematea arlo hauetan: medikuntza orokorra, pediatria eta erizaintza, proba diagnostikoak egitea eta komunitatean esku hartze sanitarioko programak.
- Gipuzkoa Mendebaldeko Eskualdea: harrera, informazio eta kudeaketa administratiboko zerbitzuak Torrekua, Ibarra, Arrasate, Beasain eta Lazkao zentroetan. Gainera, Billabona-Anoeta eta Oñatiko zentroek hedadura osoa dute eta horren barruan sartzen da lehen mailako atentzioko asistentzia sanitarioa ematea arlo hauetan: medikuntza orokorra, pediatria eta erizaintza, proba diagnostikoak egitea eta komunitatean esku hartze sanitarioko programak.
- Barrualdeko eskualdea: harrera, informazio eta kudeaketa administratiboko zerbitzuak Aiala, Abadiño, Markina eta Ondarroako zentroetan. Gainera, Landako-lurreta eta Kareaga-San Migeleko zentroek hedadura osoa dute eta horren barruan sartzen da lehen mailako atentzioko asistentzia sanitarioa ematea arlo hauetan: medikuntza orokorra, pediatria eta erizaintza, proba diagnostikoak egitea eta komunitatean esku hartze sanitarioko programak.
- Uribeko Eskualdea: harrera, informazio eta kudeaketa administratiboko zerbitzuak Astrabudua, Algorta, Areeta, Erandio, Txorierri eta Gorliz-Plentziako zentroetan. Gainera, Leioako zentroak hedadura osoa du eta horren barruan sartzen da lehen mailako atentzioko asistentzia sanitarioa ematea arlo hauetan: medikuntza orokorra, pediatria eta erizaintza, proba diagnostikoak egitea eta komunitatean esku hartze sanitarioko programak.
- Bilboko Eskualdea: harrera, informazio eta kudeaketa administratiboko zerbitzuak Errekaldeberri, San Inazio, Alde Zaharra, Santutxu-Solokoetxe, Basurtu-Altamira eta Mesedeetako zentroetan. Gainera, San Adrian eta Santutxu-El Karmeloko zentroek hedadura osoa dute eta horren barruan sartzen da lehen mailako atentzioko asistentzia sanitarioa ematea arlo hauetan: medikuntza orokorra, pediatria eta erizaintza, proba diagnostikoak egitea eta komunitatean esku hartze sanitarioko programak.
- Ezkerraldea-Enkarterriko Eskualdea: harrera, informazio eta kudeaketa administratiboko zerbitzuak Muskiz-Gallarta, Mamariaga, Portugalete-Errepelega, Balmaseda, La Paz, Trapaga, Zalla, Desertu, Sodupe eta Zuazoko zentroetan.
- Donostia Ospitalea: horniketa kudeatzea, erradioterapia, kanpo-kontsultak eta anatomia patologikoko laborategia.
- Gurutzetako Ospitalea: elikadura, mantentze-lan orokorrak, ingeniari-tza elektronikoa, segurtasun eta ingeniari-tza, ostalaritza, ekonomia-finantzako kudeaketa, urgentzia pediatrikoak eta etxeko ospitalizazioa.
- Txagorritxu Ospitalea: sukaldea, atentzio farmazeutikoa kanpo-bezeroari, larrialdietako laborategia, biokimikako laborategia eta pazienteak eta erabiltzaileak atenditzeko zerbitzua.

- Santiago Ospitalea: otorduak prestatzea, medikuntza nuklearra, dokumentazioa eta artxiboa, garbiketa eta ospitalizazioa eta elikatze jokabidearen tratamendua.
- Basurtuko Ospitalea: anatomia patologikoa, presazko analisietako unitatea eta terapia antineoplasikoa.
- Galdakaoko Ospitalea: farmakoak ematea kanpo-bezeroei, Terapia antineoplasikoa, diagnostiko biologikoko probak, azterketa zitologikoak, histologikoak eta autopsiak eta hemoderibatuen transfusioa.
- Zumarragako Ospitalea: liburutegia, proba erradiodiagnostikoak, anatomia patologikoa, materiala esterilizatzea, kanpo-konsultetako eta larrialdietako onarpena, atentzioa pazienteari eta asistentzia soziala, hornikuntza, arropa eta arropa zuria garbitzea, ordainketak, ekipoak eta instalazioak konpontzea, lan osasuna, kudeaketa, hondakinak garraiatu eta biltegitratzea eta ingurumena kudeatzea ISO 14001:1996.
- Bidasoako Ospitalea: kirurgiarik gabeko ingresua, analisi klinikoetako laborategia, anatomia patologikoko laborategia, erradiologia, historia klinikoen onarpena eta artxiboa, hondakin biosanitarioak kudeatzea, sukaldaritza, garbiketa, mantentze-lanak eta materiala esterilizatzea.
- Deba Garaiko Ospitalea: pazienteak onartzea eta historia klinikoen artxiboa, ospitalizatutako paziententzako medikamentuak, pazienteak eta erabiltzaileak atenditzea, odol bankua, materiala esterilizatzea eta onarpena eta erizaintzako atentzioa.
- Santa Marina Ospitalea: pazienteak onartzea, analisi klinikoak, erradiologia, farmazia eta artxiboa.
- Gorlizko Ospitalea: kudeaketa farmakoterapeutikoa eta onarpena eta dokumentazioa.
- Arabako Ospitalea: kudeaketa farmakoterapeutikoa eta pertsonalaren kudeaketa administratiboa.
- Bermeoko Ospitalea: farmakoterapia, ekonomia-finantzako kudeaketa eta ospitale barne-kanpoko errehabilitazioa.
- Zaldibarko Ospitalea: kudeaketa farmakoterapeutikoa eta ekonomia-finantzako kudeaketa.
- Zamudioko Ospitalea: analisi klinikoak, farmazia, liburutegia, garbiketa eta errehabilitazioa ospitalizazioan.
- Transfusio eta Giza Ehunen Euskal Zentroa.
- Osatek: asistentzia sanitarioa irudi bidezko diagnostikoa erabilia.

Hurrengo orrialdean agertzen da aitormenen egoera-koadroa Osakidetza zerbitzu-erakundeetan.

Erakundeen kanpo-aitormenak (ISO eta EFQM)

	ISO	EFQM			
	Egiaztagiria	Bikaintasun konpromisoaren diploma	>300 puntu Euskaliten kanpo-ebaluazioan	Euskaliten Zilarrezko Q	Eusko Jaurlar. urrezko Q
Arabako Eskualdea	3 zentro (osorik) 7 zentro (BAE bakarrik)				
Gipuzkoa Ekialdeko Esk.	2 zentro (osorik) 5 zentro (BAE bakarrik)				
Gipuzkoa Mendebaldeko Esk.	2 zentro (osorik) 5 zentro (BAE bakarrik)				
Bilboko Eskualdea	2 zentro (osorik) 6 zentro (BAE bakarrik)				
Ezkerraldea-Enkarterriko Esk.	10 zentro (BAE bakarrik)				
Barrualdeko Eskualdea	2 zentro (osorik) 4 zentro (BAE bakarrik)				
Uribeo Eskualdea	1 centro (osorik) 6 zentro (BAE bakarrik)				
Donostia Ospitalea	4 prozesu				
Gurutzetako Ospitalea	8 prozesu				
Txagorritxu Ospitalea	5 prozesu				
Santiago Ospitalea	5 prozesu				
Basurtuko Ospitalea	3 prozesu				
Galdakaoko Ospitalea	5 prozesu				
Zumarragako Ospitalea	13 prozesu				
Bidasoako Ospitalea	10 prozesu				
Mendaroko Ospitalea					
Deba Garaiko Ospitalea	6 prozesu				
San Eloy Ospitalea					
Santa Marina Ospitalea	5 prozesu				
Gorlizko Ospitalea	2 prozesu				
Zamudioko Ospitalea	5 prozesu				
Bermeoko Ospitalea	3 prozesu				
Zaldibarko Ospitalea	2 prozesu				
Arabako Osp. Psik. ta OKOM	2 prozesu				
Bizkaiko OKOM					
Gipuzkoako OKOM					
Transf. eta Giza Ehunen EZ	Osorik				
Txagorritxuko Erizaintzako Unibertsitate Eskola					
Osatek	Erakunde osoa				

BAE: Bezeroak atenditzeko eremua

■ Erakundearen argitalpenak

Inprimatuak

- Competencias profesionales: Una guía para la formación enfermera.
Gasteizko Erizaintzako Unibertsitate Eskola. Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua. Vitoria-Gasteiz. 2004. ISBN 84-89342-31-8.
- EFQM autoebaluaziorako gidaliburua kudeaketa-unitateentzat: Nola hobetu unitatea.
Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua. Vitoria-Gasteiz. 2004. ISBN 84-89342-32-6.
- Asistentzia psikiatrikoa eta osasun mentala: Plan estrategikoa 2004-2008.
Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua. Vitoria-Gasteiz. 2004. ISBN 84-89342-33-4.
- Guía para la gestión del proceso de esterilización.
INOZ Batzordea. Osakidetza- Euskal Osasun Zerbitzua. Vitoria-Gasteiz. 2004. ISBN 84-89342-34-2.
- Prozesuak kudeatzeko gida ISO 9001:2000 erakunde sanitarioetan.
Asistentziaren Kalitatearen Zuzendariordeztza. Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua. Vitoria-Gasteiz. 2004. ISBN 84-89342-35-0.
- Urrezko Q Memoria: Gipuzkoa Ekialdeko Eskualdea.
Gipuzkoa Ekialdeko Eskualdea. Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua. Vitoria-Gasteiz. 2004. ISBN 84-89342-36-9.
- Zilarrezko Q Memoria: Txagorritxu Ospitalea.
Txagorritxu Ospitalea. Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua. Vitoria-Gasteiz. 2004. ISBN 84-89342-37-7.
- Los servicios de enfermería en atención primaria.
Asistentzia Sanitarioko Zuzendaritza. Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua. Vitoria-Gasteiz. 2004. ISBN 84-89342-38-5.

Bideografikoak

60 bideo zientifiko eta sanitario egin dira eta horietatik %72 Bizkaiko zentroetakoak dira, %5 Arabakoak eta %23 Gipuzkoakoak, gaien arabera honela sailkatzen direnak:


Kirurgia orokorra	7
Kirurgia endoskopikoa	19
Bestelako espezialitate kirurgikoak	14
Espezialitate medikoak	11
Osasun-hezkuntza	6
Marketing sanitarioa	3

Osasun zientzietako ikusentzunezko argitalpenen fondoak badauzka 895 erregistro.

■ Interes bereziko arautegia

ARAU-MOTA	ARGITARATZE DATA.*	AIPAMENA
2/2004 Legea	2004/3/4	Jabetza publikoko datu pertsonalen fitxategiak eta Datuak Babesteko Euskal Agentziaren sorrera.
7/2004 Legea	2004/10/15	Drogamenpekotasunen inguruan prebenitu, asistitu eta birgizarteratzeko legearen bigarren aldaketa.
239/2004 Dekretua	2004/12/15	Osakidetzako Ente Publikoaren zuzendarien zerrenda onartzea.
25/2/2004 Agindua	2004/4/29	Organoak eta ehunak erauzi eta transplantatzeko jarduerak egiteko zentro sanitarioen akreditazioari buruzko Agindua.
22/11/2004 Agindua	2004/11/26	Baliabide elektroniko, informatiko eta telematikoen bidez Euskadiko sistema sanitarioarekin harremanetan jartzean sinadura elektronikoa erabiltzeko arauak ezartzea.
12/11/2004 Agindua	2004/12/3	Euskadiko sistema sanitarioko praktika asistentzian teknologia sanitarioak sartzeko prozedura ezartzea.
26/1/2004 Erabakia	2004/2/18	Enteko zerbitzu sanitarioetako erakundeetan pertsonal ez finkoa kontratatzeke zerrenden sistema arautzea.
8/3/2004 Erabakia	2004/3/30	Ordaintzera behartutako hirugarrenei zerbitzu sanitarioak eta irakaskuntzakoak emateagatikotarifak onartzea.
13/5/2004 Erabakia	2004/6/11	Osakidetzak kudeatzen dituen datu pertsonalen fitxategi automatizatuak arautzea.
1/2004 Jarraibideak	2004/1/7	Osakidetzako 2003-2007 Kalitate Plana ezartzea.
3/2004 Jarraibideak	2004/6/30	Pazientearentzako informazio klinikoa eta baimen informatua.
6/2004 Jarraibideak	2004/6/7	Gailu ezargarriak eta euren material suntsigarria hornitzea intsulina, morfikoak eta beste farmako batzuk etengabe erabili ahal izateko ospitaleratu gabeko pazienteekin.



(*) Dekretu, Agindu eta Erabakien argitaratze-data Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarikoa da.




III. Pertsonak

■ Plantilla


Langileen banaketa talde profesionalen arabera




Plantillaren banaketa erakunde-motaren arabera




Arabako plantillaren banaketa



Gipuzkoako plantillaren banaketa




Bizkaiko plantillaren banaketa




Plantillaren ezaugarriak


GENEROAREN ARABERAKO BANAKETA




ADIN-PIRAMIDEA




GENERO ETA ADIN-TALDEKOEN ARABERAKO BANAKETA



GENERO ETA TALDE PROFESIOALEN ARABERAKO BANAKETA



ADIN ETA TALDE PROFESIOALEN ARABERAKO BANAKETA



Plantillaren plangintza eta antolamendua

	Fakultatiboak	Sanitario ez-fakultatiboak	Zerbitzu orokorrak	Funtzio administratiboa	Guztira
Lekualdaketa	48	41	11	20	120
Egokitzapena	85	507	37	29	658
Hierarkizazioa/ Integrazioa	37	30			67

■ Hautaketa eta lanpostuak betetzea

Lan-Eskaintza Publikoa

Ekitaldian izendatutako 112 kategoriatatik 110etako lanpostuen esleipena eta jabetzea egin da, hau da, guztira eskainitako 1.731 lanpostuetatik 1.716, baita Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren 8/1997 Legeko Hirugarren Xedapen Iragankorrari dagozkion 101 lanpostu ere. Lehen Mailako Atentzioko Farmazia eta Prebentzioko Erizain kategoriak esleitzeko daude oraindik. Azken deialdian, hautaketa-prozesuari berriro ekin zitzaion urrian, oposaketa eta euskara probak eginez.

Urteko azken hiruhilekoan, Barne Sustapenaren ondorioz hutsik gelditu ziren lanpostuen esleipenari ekin zitzaion (326 lanpostu).

Deialdi publikoak

Zuzendariak	Izendapen askea	Lehen mailako atentzioko unitateburuak
10	6	14

Aldi baterako kontratazioa

Emaitzarik gabe berariazko negoziazio-prozesua eman ondoren, 2004ko urtarrilaren 26ko Akordioaren bidez, Osakidetza/ Euskal Osasun Zerbitzuko Administrazio Kontseiluak zerrenden sistemaren arauketa onartu zuen, Erakundearen zerbitzu-erakundeen aldi baterako pertsonala sartzeko. Akordio horrek hobekuntza handiak barneratzen ditu lan-eskaintzei uko egiteko arrazoiaren arloan eta euskararen erabilera normalizatzeko 67/2003 Dekretuaren aurreikuspeneko puntuazio-baremoari egokituz.

Horri jarraiki, martxoan eta apirilean 106 kategoriatako zerrenda berrietan parte hartzeko eskabideak aurkezteko epea zabaldu zen; horietan 95.150 eskabide jaso ziren. Prozesu honetan eta lehen aldiz, Osakidetza Erakunde Publiko honetan lan egin duten hautesleen esperientzia profesionalaren zenbaketa burutu zuen.

Behin uztailean eta irailean behin-behineko zerrendak argitaratu eta erreklamazioak ebatzi ondoren, urteko azken lauhilekoan indarrean sartu dira kategoria guztietarako aldi baterako kontratazioen behin betiko zerrendak.


Aldi Baterako Kontratazioa 2004 Web orriaren bidez, hautagaiek eskabideen aurkezpena eta zerrenden lantzea eta argitalpena jarraitu ahal izan dituzte.

Pertsona kopurua	Eskabide kop. guztira	Internet bidezko eskabideak	Internet kanpoko eskabideak	Zerrenda kopurua
45.745	95.150	43.888	51.262	10.567

Kategoriak	Eskabideak	Onartuak	Onartuen %	Erreklamazioak	Errekurtsoak
A1 Fakultatibo medikoak eta teknikoak	5.648	4.653	%82,38	965	193
A2 Goi-mailako teknikariak	4.687	3.611	%77,04	150	25
B1 Erdi-mailako teknikari sanitarioak	7.297	6.688	%91,65	527	107
B2 Erdi-mailako teknikariak	3.949	3.009	%76,20	104	24
C1 Teknikari espezialista sanitarioak	2.264	1.743	%76,99	162	38
C2 Administrariak	6.859	5.815	%84,78	156	27
C3 Teknikari espezialista profesionalak	1.766	924	%52,32	91	28
D1 Erizaintzako laguntzaileak	10.507	9.837	%93,62	552	142
D2 Administrari laguntzaileak	11.956	10.861	%90,84	660	141
D3 Teknikari laguntzaile profesionalak	13.730	11.438	%83,31	379	75
E1 Zeladoreak	11.015	10.116	%91,84	391	84
E2 Zerbitzuetako langileak	15.472	14.046	%90,78	355	90
GUZTIRA	95.150	82.741	%86,96	4.492	974

Pilatutako kontratazio-denbora pertsonako

Pilatutako kontratazio-denbora pertsonako



Izendapenak/kontratuak generoaren arabera

		GIZONAK	EMAKUMEAK	GUZTIRA
A1	Fakultatibo medikoak eta teknikoak	%31,92	%68,08	%22,30
A2	Goi-mailako teknikariak	%45,00	%55,00	%0,03
B1	Diplomadun sanitarioak	%9,60	%90,40	%31,69
B2	Erdi-mailako teknikariak	%6,31	%93,69	%0,10
C1	Teknikari espezialista sanitarioak	%9,86	%90,14	%3,67
C2	Administrazioko teknikari espezialistak	%4,51	%95,49	%0,12
C3	Teknikari espezialista profesionalak	%42,83	%57,17	%0,46
D1	Teknikari laguntzaile sanitarioak	%4,49	%95,51	%17,70
D2	Administrazioko teknikari laguntzaileak	%8,94	%91,06	%10,10
D3	Teknikari laguntzaile profesionalak	%43,01	%56,99	%2,65
E1	Urgazleak/langileak	%30,06	%69,94	%11,19
		%16,94	%83,06	%100

Kontratazioko Akordioa garatzearen, behar diren protokoloak ezarri dira berariazko hizkuntza eskakizuna duten lanpostuak kontratazeko. Honako kontratazio hauek egin dira hutsik eta erreserbatuta dauden lanpostuak betetzeko:

TALDE PROFESIONALA	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
A	2	5	1
B			1
C		1	1
D			1
GUZTIRA	2	6	4

Zerbitzu Batzordeak

60/2003 Dekretuari euskararen normalkuntzaren zerbitzu batzordeen prozedura egokitze aldera, eta Osakidetzako eta beste Osasun Zentroetako langile finkoak bere jaioterrira edo bizitokira hurbiltzea ahalbidetzen duen sistemaren esleipena eguneratzeko eta bizkortzeko, 1/2004 Jarraibidea, martxoaren 11koa, Giza Baliabideen Zuzendariarena, eman zen. Martxoan kategoria guztietako zerrendak eratzeko eskabideak aurkezteko epea egokitu zen, fakultatiboenak izan ezik, eta aurkezteko epea uztailan zabaldu zen. Prozesu horren jarraipena Zerbitzu Batzordeak 2004 Web orriaren bidez ere egin ahal izan da.

Ekitaldi honetan alde sozialarekin gai horren inguruko beste negoziazio bat egin da.

Talde profesionaleko zerrenda bakoitzean aurkeztutako eskabide kopurua honakoa da:

TALDE PROFESIONALA	Eskabideak	Onartuak
A1: Fakultatibo medikoak eta teknikoak	165	129
A2: Goi-mailako teknikariak	13	7
B1: Diplomadun sanitarioak	913	843
B2: Erdi-mailako teknikariak	17	13
C1: Teknikari espezialista sanitarioak	34	31
C2: Administrazioko teknikari espezialistak	37	36
C3: Teknikari espezialista profesionalak	3	2
D1: Teknikari laguntzaile sanitarioak	270	265
D2: Administrazioko teknikari laguntzailea	110	99
D3: Teknikari laguntzaile profesionalak	17	15
E1: Urgazleak/zerbitzuetako langileak	87	81
GUZTIRA	1.666	1.521

Koadro honetan beste Osasun Zerbitzu batzuetarako eta beste Osasun Zerbitzu batzuetatik datozenentzako onartutako Zerbitzu Batzordeak islatzen dira; baita Osakidetza langileei erakunde honetako beste zerbitzu-erakunde batzuetan lan egiteko emandakoak ere.

BESTE OSASUN ZERBITZUETARA JOANAK	
Emakidak	Luzapenak
14	55

BESTE OSASUN ZERBITZUETATIK DATOZENAK	
Emakidak	Luzapenak
12	41

OSAKIDETZAKO ZERBITZU ERAKUNDEEN ARTEAN	
Emakidak	Luzapenak
135	411

■ Emaizak pertsonengan

Pertsonen gogobetetasunaren ebaluazioa

Osakidetza bere Plan Estragikoan 2003-2007 denboraldirako ezarritako "Pertsonalaren Inplikazioa" lortzeko, ekitaldi honetan Pertsonen Gogobetetasunaren Ebaluazioa jarraitu da; horretarako, prozedura eta korporazio-inkestak erabili dira, eta horrek ahalbidetu du zerbitzu-erakundeetan lortutako ustiapen integrala.

Korporazio-inkestak, zeinaren datuak jarraian ematen diren, ahalbidetu du profesionalen pertzepzioa ezagutzea hamahiru dimentsiotan, erakundeko pertsonen gogobetetasunari lotuta, eta baita aztertutako item guztien emaitzen gogobetetasun orokorra.

2001-2003 denboraldian Osakidetza pertsonen gogobetetasunaren ebaluazio korporatiboaren lehen zikloari amaiera eman zitzaion, epealdi horretan, zerbitzu-erakundeek gogobetetasunaren korporazio-inkestaren aplikazio bat izatea lortu zuten gutxienez.

2004an sei zerbitzu-erakundek egin zuten gogobetetasunaren ebaluazioa. Ebaluazio horiekin lortutako emaitzak egungo ekitaldiko aplikazioekin integratuko dira, ebaluazio korporatiboaren bigarren ziklora osatzeko asmoz.

Ondoren eskainitako datuek honakoa islatzen dute:

- Pertsonen gogobetetasunaren ebaluazio korporatiboaren lehen ziklotik lortutako emaitzak
- 2004an burututako aplikazioetatik lortutako emaitzak (sei erakunde-zerbitzu)

Pertsonen gogobetetasunaren inkesta korporatiboaren aplikazioen garapena

MOTA ERAKUNDEA	EBALUAZIO KORPORATIBOAREN LEHEN ZIKLOA								APLIKAZIOAK	
	2001		2002		2003				2004	
	ERAKUNDEA	KP.	ERAKUNDEA	KP.	ERAKUNDEA 1. EBALUAZIOA	KP.	ERAKUNDEA 2. EBALUAZIOA	KP.	ORGANIZ.	KP.
